

OKENDO-RI.

Gaur Donostiyak onratu nairik
 Okendo seme aundiya,
 Izandu zana bere denboran
 Itsas-gizon gudariya,
 Ipintzen dio Erregearen
 Eskuz lenengo arriya,
 Aren gañian egin dezaten
 Bere ekantza berriya,
 Izan dedien edertutzeko
 Bera jayo zan erriya,
 Eta gañera beraren seme
 Denen oroimengarri ya.

¡Ona, Okendo lurperatua
 Non zaigun berriz azaltzen,
 Bera jayo-zan erri-maitetan
 Ari dirade jasotzen!
 Erritar denak au ikustea
 Zutelarik desiatzen,
 Arkitzen dira pozez beteak
 Egiñarekin gozatzen,
 Zure kondaira guztiyak dira
 Zu ikustean oroitzen,
 Zeñak ez diran iñoiz utziko
 Gure burutik aztutzen.

José Artola.

Donostian, milla zortzireun larogei ta zazpigarren urteko Agorriaren bostean.

ANTONIO OKENDO-RI.

Donostiako seme doaitsu
 gañekoetan goitua,
 aiñ aundi zera nik kantatzeko,
 nola ni chiki jayua.
 Lenbizikotik izandu ziñan
 zerubak aukeratua,
 bestela Okendo ¿nola ta nondik
 izan zu bezelakua?
 Eun gudetan itsas zabalán
 iñoiz mendetu gabia,
 arkitu ziñan umantasunaz
 mundu denaren jabia.
 Zure omena idukirikan
 biotz denetan gordia,
 biar bezela izango dezu
 gaurtikan oroikarria.

Marcelino Soroa.

OKENDO-RI.

Zure oroitza goitutzen du gaur
 Aingeru baten eskuak,
 Bere amaren sabeletikan
 Errege jaiotakuak;
 Ez guchiago merezi zuen
 Zure izen famatuak,
 Donostiatik kanporaturik
 Mundua betetakuak.

Antonio Arzác.

